

HAPPEN, GASTEIZEN HIRI- ETA INDUSTRIA-ENERGIA POSITIBOKO BARRUTI BAT ERATZEKO EUROPAR PROPOSAMENA

Posted on 21/11/2024 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Ciudades y territorios de energía positiva](#), [Descarbonización de la industria](#), [Distritos de energía positiva](#), [Energía positibodun barrutiak](#), [Energía positibodun hiriak eta lurraldeak](#), [Industriaren deskarbonizazioa](#)

Erakunde liderren partzuergo batek, [Vitoria-Gasteizko Udala](#) buru dela, proposamen aitzindari bat aurkeztu du hirigintza- eta industria-ingurune baten deskarbonizazio integralerako, Europako lehen Energia Positiboko Hiri eta Industria Barrutia eratzeko. Proposamena [Ekintza Berritzaileetarako Europako Hiri Ekimenaren \(EUI-IA\)](#) deialdira aurkeztu da. Ekimen hori Europar Batasunak finantzatzen du, hiri-erronkei irtenbide ausartak eta berritzaileak emateko.

HAPPEN proiektuak Energia Positiboko (ingelesez PEN, Positive Energy Neighbourhood) Hiri-Industria Ingurune baterako sorkuntza, inplementazioa eta gobernantza ditu ardatz. Betoñurako pentsatu da, udalerrriaren ipar-ekialdeako industria-, merkataritza- eta bizitegi-eremu mistoa, hain zuzen.

Proposamena aurrera ateraz gero, proiektuak sei milioi euro baino gehiagoko zuzkidura izango du, % 80 Europako erakundeek eta % 20 bazkide sustatzaileek jarria. Erabakiak hartzerakoan ikuspegi inklusiboa eta parte-hartzailea izateaz gain, proiektuaren ezaugarri dira deskarbonizazio-ekimenen iraunkortasuna, finantzaketaren ikuspegitik, hiriko beste esparru batzuetara igotzeko aukera, eta beste hiri batzuetan erreplikatzeko aukera.

Udalaz eta [GILSA](#) udal-elkartez gain, beste sei erakundeek bultzatu genuen hautagaitza. NAIDERek hiri-birgaitzearen eta industria-deskarbonizazioaren arloan beharrezkoak diren garapen teknikoak eskaintzen ditu; [IKERLAN](#) zentro teknologikoak ezagutza teknikoa ematen du proiektuaren esparru energetikoa garatzeko; [ACLIMA](#) enpresa-klusterrak Euskadiko ingurumen-industriaren funtsezko eragile gisa duen ikuspegiarekin laguntzen du; [MOBILITY LAB Vitoria-Gasteiz](#) berrikuntza-poloak mugikortasun adimenduneko soluzioekin laguntzen du; [Euskal Herriko Unibertsitateak \(EHU\)](#) sendotasun akademiko eta teknikoa ematen dio proiektuari; eta, azkenik, [EIDE Basque Design](#)-ek gobernantzarako diseinuan ezagutza ematen du.





Irudi ilustratiboa: Woliul Hasan, Unsplash

